

Jon Munduate Goikoetxea

B maila • 3 saria



Beti esan ohi dudan bezala, musika zale amorratua eta nobela zein zine beltzaren maitale, horrelakoa naiz ni. Eta aurtengoan ere hemen natorkizue nire beste istorio batekin. Nobela beltza irakurri eta istorio ilunak idazten ditut, orokorrean. Hots, idatzi ditudan prosa guztiak istorio ilun eta trinkoak direla esango nuke.

Baina oraingo honetan ez. Zerbait berezia idazteko gogoz jarri nintzen ordenagailu aurrean Gabon oporretako arrats euritsu batean. Ez nengoen zihur zer, baina zerbait berezia nahi nuen idatzi. Idazten hasi, ezabatu, hasi eta ezabatu; horrela hasi nintzen ipuinari forma eman nahian. Eta bapatean, burua pixka bat nekatu ostean, piztu zitzaidan bonbila. Ipuin eroa dela pentsa dezakezue, zentzugabea edo akziorik gabekoa.

Makina bat galdera sortu zitzaizkidan buruan, eta hauei erantzuna eman nahi die, edo besterik gabe, gaiaren inguruan pentsarazi. “Ba al dakigu nolakoak garen?” eta “Nor garen?”. Besterik gabe, “X+Y+Z”

X + Y + Z

Urte zahar bezperako iluntzean. Aireportu batean kokatuko dugu istorioa. Espainiako aireportu batean, non, orduko 60 hegazkin aterata eta lurreratzen diren. Espainiar hiriburuko “Adolfo Suárez Madrid Barajas” aireportuan hain zuzen. Eta horri, T4 terminala dela gehituko diogu. Inongo arrazoi partikularrik gabe; beste barik, istorioa ahalik eta informazio gehienarekin hasteko asmoz.

Gizon bat izango da gure protagonista. Matematikari bat dela esan dezakegu, zerbait esateagatik. Kafetegi batean ezaguturiko beste hiru lagunekin, hegazkinaren zain dagoena. Berdin dio nora doan. Ez du axola Austria, Alemania edo Ingalaterrara den. Berdin dio nola izena duen ere. Hori da gutxienezkoa. Izan hau buruan, irakurle. Aireportu batean hegazkinaren zain dauden gizon xeble batzuen istorioa irakurtzera zoaz.

Plastikozko koilaratxoa dantzan zuen kartoizko edalontzia eskuan genuela, korrika aterata ginen aireportuko Starbucksetik, Barajaseko T4 terminalaren bi puntak lotzen dituen zinta mekanikoaren gainean, argiaren abiadan joango bagina bezala. Kafetegian topatutako hiru ezezagunak atzetik nituela. H14, errepikatzen nuen behin eta berriz neure golkorako. Hatzak

gurutzatuak nituen, ordurako iritsiko ote nintzen (zer axola besteak). Baina atera iritsi eta garbi irakur zitekeen "IB3910, Viena, CERRADO". Oraindik arnas estuka nengoen, hitzak saltoka, esaldi etenak jaurtiz. Atean zegoen azafatak, jada ikusia bagenuen ere, ezin genuela hegaldia hartu eta hurrengo egunean Vienara zihoan lehen hegaldian "kolokatuko" gintuela. Kolokatu; hamar liburu sartzen diren tokian hogeitartu nahi balitu bezala. Beraz, fakturatuak genituen maleta handiak berreskuratu eta hurrengo egunean hegazkina aterako zen atearen aurrean eseri ginen.

Kafetegian denbora joan zitzaigun, ohartu gabe, denborale zakar bateko haizea balitz bezala. Telebistan hegazkina hartzea galarazi zigun partidari begira geundela. Ez lituzkete aireportuetan telebistak onartu behar. Ezta dendak ere. Bigarren aldiz, hegazkin batek alde egiten baitit denbora pasatzeko metodo hauen erruz. Non geunden, aireportu batean ala merkatal zentru batean? Zer zen hura, txanponak xahutzeko metodo kapitalista bat? Ez; globalizatua? Ezta ere; nazkagarria, bai horixe, sosak gastatzeko metodo nazkagarri bat zen guztia. Eta hori gutxi balitz bezala, konpainiak ez zigun gaua pasatzeko hotelik ere eskaini, terminaleko aulki hotzetan esertzera "gonbidatu" besterik ez gintuzten egin.

Traje dotore batez jantzitako gizasemea, desesperaturik lana zela eta Austriara zihoan gizona, abentura bila poltsikoan sosik gabe zegoena, eta ni. Laurok geunden, isilik, eskuak gurutzatu eta behera begira. Hemendik aurrera, X, Y, eta Z izango dira. Aireportuko giro deseroso horretan lan astunegia baitzen izenak galdetzen hasia. Ni, ni izango naiz noski, izen-abizenak baitituz; edo hori dio behintzat, nire N.A.N. agiriak.

-Zuek ere "Businessean" zoazte?-Galdetu zigun X-ek. Baina inork ez genion erantzun, burua altxatu besterik ez genuen egin. - Ba ni bai, ezin dut, ezin dut turista klasean bidaiatu. Agobiatu egiten naiz. Eserleku estuak, haurrak negarrez, albokoak altxatu beharrik izanez gero ilara guztia altxatu behar; eta batek daki zenbat eskutatik pasatako eta iragarkiz beteriko aldizkari antzu horiek, "Har nazazu" xuxurlatzen. Alde ederrean, 1A eserlekuan eseri eta hegazkinean sartu berri den egunkari bat irakurriz, kafe bat hartu bitartean.- Esan zuen, bere burua goratu nahian- Eta, Vienan zer asmo?, nik gabon zahar gaua bertan pasa eta filarmonika orkestraren urte berri kontzertua ikusteko asmoa dut. Ritz-ean lo egin, Pradaren jaka berria jantzi... Badakizue, urtean behin egin beharreko kapritxo horietako bat- esan zuen soinean zeraman txaketaren gainetik eskua pasa bitartean.

Trajearen jaka kendu eta denen bistan geratu zitzaion "Zara Man" jartzen zuen etiketa, baita eskuartean zuen azken belaunaldiko Iphonaren imitazio txinatarra ere. Ezin izan nuen eutsi, ufada batek ihes egin zidan. Haur baten moduan gezurrak esaten zituen gizon baten bakarrikzeta entzuteak nerbioak irakiten jartzen zizkidan.

-Eta, zuek zer, zuek ere urte berriari hasiera on bat emateko asmoz? Gustura gonbidatuko zintuzketet kontzertura, baina sarrerak agortuak omen daude. Nik aurreko astean eskuratu nuen nire sarrera, baina kostata, ez pentsa! Eskerrak, Euskadiko Orkestra Sinfonikoko zuzendari berria laguna dudana, eta, halere ia hirukoitza ordaindu nuen! Baina beno...

-Kapritxoa, ezta?-moztu zion Y-k.

-Ba ni, Bilboko enpresa batean hamar urtez lan egin ondoren, enpresak atzerrian aukera berriak dituela ikusirik, Vienan ireki berri duten bulego batera bidali naute, curriculuma hobetu behar dudala esanez. Kaka! Adin honekin eta oraindik curriculuma hobetzeko proposamena. Beraien komenientziarako guztia. Besterik ez! Dena pikutara bota eta Austriako bizimodura moldatu behar naizela pentsatzeak sutan jartzen nau! Eta hori dena, behar bezalako errendimentua ez izateagatik izan da, ziur nago! Urteko emaitzarik kaxkarrenak izan omen ditut, nahiz eta antibiotiko sailak bere historiako emaitzarik positiboak izan. Zer axola zaie ba gure denbora librea... lana, lana eta lana; eta nazkatu eta lan orduetatik kanpo beharrari eusten ez diozula ikustean atzerrira bidaltzen zaituzte! - Oihukatu zuen Y-k goizeko ordu txikitana ia hutsik zegoen terminalean oihartzun eginez.

-Uff! Nik ere Bilbon egiten nuen lan! Baina... zerbait berria probatu nahian nabil, barruan dudana hutsune hau betetzeko asmoz... Ez dakit ordea, Austria aldean zerbait interesgarririk

aurkituko dudan. Gutxienez, bertan ditudan lagun zahar batzuk bisitatzeke aukera izango dut- Komentatu zuen Zk- Egia esan nik ez dut helburu jakinik. Hegazkina hartu, aireportura iritsi, eta haizeak eraman nazala. Momentuz lana badut, baina... ez dut uste denbora luzerako izango denik. Ni ere nazkatuta nago! -hasperen egin zuen- Sufritu dudana sufritu ondoren, abentura bila joatea erabaki dut. Orain hemen nago, baina ez dakit non egongo naizen urtebete barru, Austrian lanean edo Australian kanguru bila.

-Hori duk hori morala! Zer egingo duan jakin gabe, hegazkina hartu eta abentura bila! Nik ere gustura egingo nitek antzeko zerbait, baina ez duk erraza -esan zion lanera zihoan gizon desesperatuak, Y-k.

Goizeko hirurak izango ziren, eta aireportua hutsik ikusten zen, overbookingagatik edo gu bezalako inozoak izateagatik beste hegazkin baten zain zeudenak salbu edota aireportu tasa merkeagoak ordaintzeko hegoamerikarrez beterik aireratzeaz dagoen abioiren bat. Besterik ez. Eta hantxe, H14 atearen parean eserita geunden, lau gizonak.

Hirurak parean nituen. Galdeketa polizial baten formatua hartu zuen antzezpen hark. Bai, arraroak izango ginen, lau pertsona izan eta mus partida jokatzeko itxura izan ordez, hiru-bat formatuan esertzea bururatzen zitzaien pertsona bakarrek.

Ezkerrean zegoena gizon handiustea zen, bere burua beste guztien gainetik jarri nahi duten horietakoa. Markako arropak zituela esan eta eskuartearen "inditex"i propaganda egiten zion jaka zaramana. Amancio Ortegarri kontu korrontea betetzen laguntzen zion behintzat. Bost izarreko hotel batera zihoala esan, eta seguraski gaua Favoriten auzo xumeko hostal batean pasako zuena, urteberri eguneko kontzertua telebistan ikusiz. Ahoa ireki zuen momentutik gezurra ez den zerbait esan ote zuen? Lehen klaseko bilete zuela ere esan zuen morroiak, baina non esertzen zen ikusteko amorru bizian nengoen. Eta, hilaren bitik aurrera zer kontaktu ote zituen Vienen?

Nire parean, aurrez aurre, enpresak Austriara bidali zuen gizon desesperatua nuen. Lan estradizio hura urtebeterako bakarrik zela esan, eta hirurako luzatuko ziotena; edo agian, laugarren hilabetearen kale gorrian utziko zutena. Batek daki. Cinfox antibiotikoaren produkzioa Vienen kontzentratzeko aitzakiaz, edota Ruperez putakumeak salmenta gurutzatuak eginaz aurre hartu izanagatik, seguraski. Baina ziurrenik bera ere ez zen egia jakitera isritsiko.

Eskuin aldean berriz, bizi berri baten bila zihoana zegoen. Austrian lana ba omen zuen, baina, ez zuen ez bertan asko iraungo. Ipurtarin xamarra zirudien. Azkar aspertuko zen hura lanean, ipixtiku galanta izango zen hura. Lanean hasi, utzi, bidaiatu... geldirik egoten ez den horietako bat. Galtzeko arriskuan dagoen espezie bat bezala kontsideratu behar litzateke. Ondo zaindu, babestu beharrak espezie horietako bat.

Konturatzerako, nire pentsamenduetan murgilduta nengoela, loak hartu ninduen. Lauzpabost ordu emango nituen lo, lepoko minez esnatu nintzenean. Aireportua ere esnatzen hasia zen. Atzean genuen kafetegitik kafe usaina zetorren, eta jendea ere mugitzen hasi zen.

Hiru gizonak parean nituela ohartu nintzen. Eskuak magalean jarrita, mugimendu txikienik ere egin gabe.

-Eta ni, ni nor naiz?- Galdera zaharregia, denbora berri haietarako.

$x+y+z$, $x+y-z$, $2x-y-z$. Institutuko matematika madarikatu haietako ekuazio sistema bat zirudien, hori bai, askatzen hasi eta emaitzarik gabeko sistema noski. Ez ordezkatzuz, ez berdinuz ezta sinplifikatzuz ere. Ezinezkoa.

Pentsatzen jarri eta nor nintzen ere ez nekiela ohartu nintzen. Azafata etorri; egun onak emak, eta gaua plastikozko eserleku gogorretan pasatzearen ordainetan hegazkinera beste inor baino lehen sartzen utzi zigun. Nik pasaporte eta hegazkin txartela erakutsi, eta beste hirurek nire atzetik gurutzatu zuten atea.

Terminala hegazkinarekin lotzen duen "finger"ean, pentsakor joan nintzen. Ez negoen ziur

nor nintzen, ezta zer nahi nuen ere. Ez nintzela heldutasunera heldu iruditzen zitzaidan. Beste edonor baino altuago egon nahi nuen, denei goitik begiratzeko. Denetik nuela erakutsi nahi izaten nuen, markako arropa, azken belaunaldiko mugikorrak... Baina azken finean, kontu korrontea gorritz pintatuta zuen gixarajo bat besterik ez nintzela ohartarazi ninduen aireportuko egonaldiak. Lan errendimentu kaxkarra nuela eta, Austrian ireki berri zuten laborategira bidali ninduten urtebetez; eta niri, enpresak berriztatzeko behar zuen puzzleko pieza nintzela iruditzen zitzaidan. Niri esker aterako zela aurrera Vianan ireki zuten laborategia. Baina kaka! Non kolokatu ez zekitelako bidali behar ninduten Austriara. "Hor konpon!" esanez. Nazkatuta nengoen, zerbait izatera iritsi nahi nuen, denek mirestuko zuten norbait izan nahi nuen.

Austriara iritsi eta bizimodu berri bat hasiko nuen; zerotik eraikitzen hasi. Lehenik, ondo zimentatuko nintzen, euskarri sendoak sortuko nituen, eta gero eraikiko nuen etxea, teilatura iritsi arte. Lanak helmugara iristea oztopatzen bazidan, utzi egingo nuen, eta aurkituko nuen beste zerbait. Egunerokoa bizitzen saiatuko nintzen, hori bai, umil, handikeriarik esan eta egin barik. "Zara"ko arropa erosi eta ez nion Dolce & Gabannaren etiketa gainean itsatsiko. Abentura bila nindoala esan daiteke, handitzen, hazten, heltzen joateko asmoz. Egunen batean, "harro nago!" esateko asmoz.

Hegazkinean sartu eta 22D eserlekuan eseri ginen laurok. Markakoa zirudien jakatik, Iphone berriaren imitazio txinatarra atera, hegaldi moduan jarri, eta Iberiak eskaintzen zuen aldizkaria irakurtzen hasi nintzen. X, Y eta Zren pisua gainean neramala.

Eta hurrengo goizean, Strauss-en baltsak 80. hamarkadako telebista zahar batean ikustearekin batera, bizimodu, edo hobeto esanda, bizitza berri bati ekingo nion Vianan.